

# UNIRE 2025KO ARAUDIA

I. **artikula:** **Araudia.** FICOBAn Fundazioaren Azoka Jardueretarako Araudia UNIRE 2025ko Araudi honekin bateginik geratzen da, bertako osagaiak baita eta, horrenbestez, Erakustaldi honetan osorik aplikatzekoa, atal guztiei dagokienez. [www.expounire.org](http://www.expounire.org) webgunean erakusketariaren atalean kontsulta dezakezu araudi hau.

II. **artikula:** **Non eta noiz.** UNIRE 2025 FICOBAn egingo da, Gipuzkoako Erakustazokan: Iparralde hiribidea 43, 20302 Irun, **2025ko martxoaren 18 eta 19an**, hurrengo ordutegian: **martxoak 18an 9:30etatik 18:00etara eta martxoak 19an 9:30etatik 17:00etara.**

III. **artikula:** **Produktuak eta zerbitzuak.** Sektore hauetako enpresak izango dira UNIRE 2025 erakusketari:

S-1: Soldadurarako eta ebakidurarako ekipa eta produktuen fabrikatzaileak / banatzaileak  
S-2: Kontsumigarrien, gas industrialen eta material betegarri eta ekarpenekoen fabrikatzaileak / banatzaileak  
S-3: Itsasgarriak  
S-4: Segurtasun- eta babes-ekipamendua  
S-5: Ebakidura, soldadura, transformazioa, konformazioa, konponketa eta soluzio automatizatua  
S-6: Homologazioa eta ziurtapena  
S-7: Ikuskaritza eta entseguak  
S-8: Prestakuntza  
S-9: Sentsoreen teknologia eta metrologia  
S-10: Aholkularitza  
S-11: Gainazalen teknologia eta tratamendu termikoa  
S-12: I+D soldadura eta lotura teknologian  
S-13: Ingeniaritzak  
S-14: Sektoreko elkarrekin

Antolotzaileak, eskabidea aztertu ondoren, produktu edo zerbitzuei uko egin diezaike, iruditzen bazaio ez datozela bat erakustaldiaren xedearekin.

IV. **artikula:** **Parte hartzeko moduak.**

## A) LURZORUA SOILIK

**Gutxieneko eremua: 18m<sup>2</sup>**  
**Prezioa/m<sup>2</sup>: 117 €/m<sup>2</sup> + % 10 BEZ**

Barne hartzen du: Koadro elektrikoa, 1.200 W-ko Schuco entxufe monofasikoarekin, web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorrean; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietzako informazioa. Doako aparkalekua.

"Lurzoria soilik" partaidetza modalitatea kontratatzen duen erakusketariak ondoren adierazten den muntaketa-kanona ordaindu beharko dio azokaren antolotzaileei, honako kontzeptu hauengatik: pabilioien argiztapena, ur-kontsumoa, garbiketa-zerbitzuak, pabilioien mantentze-lanak hirugarren batzuek erabiltzeagatik, pertsonak eta ibilgailuak esparrura sartzeko behar diren langileak, etab. Horma autosostengatzailea eraikitzea eta erakundearen bidez moketa jartzea kontratatzen duten enpresa erakusleek ez dute muntaketa kanona ordaindu beharko.

Diseinuko stand-a muntatzeko kanona: 4,42 €/m<sup>2</sup>  
Moketa muntatzeko kanona: 2,21 €/m<sup>2</sup>

## B) STAND MODULAR PACKA

**Gutxieneko eremua: 12m<sup>2</sup> / Gutxieneko sakonera: 3m**  
**Prezioa: 217 €/m<sup>2</sup> + % 10 BEZ**

Barne hartzen du: lurzoria, melaminazko horma zuriak, aluminiozko profila, errotilua, moketa, koadro elektrikoa Schuco entxufe monofasikoarekin eta 50w/m<sup>2</sup>-ko argiztapen-fokuekin, mahai borobila edo mahai altua; hiru aulki edo hiru taburete; erakusmahai bat; web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietzako informazioa; Doako aparkalekua.

## C) START UP ENPRESENTZAKO PACKA

**Eremua: 4 m<sup>2</sup>**  
**Prezioa: 424 € + % 10 BEZ**

Barne hartzen du: lurzoria, melaminazko horma zuriak, aluminiozko profila, errotilua, moketa, koadro elektrikoa Schuco entxufe monofasikoarekin eta 50w/m<sup>2</sup>-ko argiztapen-fokuekin, mahai altua eta bi taburete; web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietzako informazioa; Doako aparkalekua.

V. **artikula:** **Zerbitzu osagarriak.** Erakusketariak zerbitzu eta altzari osagarrien katalogoa daukate eskuragarri erakusketariaren extranet-ean, [www.expounire.org](http://www.expounire.org) webgunean. Zerbait kontratatu nahi izan ezkerre, jarri harremanetan antolotzaileekin.

2016/679 (EB) Erregelamenduak eta gure pribatutasun-politikak ([www.ficoba.org](http://www.ficoba.org) webgunean) xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu FICOBAn FUNDAZIOAREN fitxategietan sartuko direla eman dizkiguzun datuak, zuri etorkizuneko ekitaldien berri emateko. Sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta ahozkoa izateko, mugatzeko, eramangarritasunerako eta aurka egiteko eskubideak bali ditzakezu, idazki bat bidaliz FICOBAn FUNDAZIOARA (Iparralde etorb., 43. 20302 Irun) edo [ficoba@ficoba.org](mailto:ficoba@ficoba.org) helbide elektronikora.

FICOBAn FUNDAZIOA, IPARRALDE hiribidea 43, 20302 Irun - Tel: (+34 943 667788) - IFK: G2081676

VI. **artikula:** **Izena ematea eta parte hartzeko kontratua.** Izena emateko izapidea "Erakusketariak onartzeko eskabidea" online inskripzioaren bidez egin beharko da. Eskabidea jasotakoan, FICOBAn telefonoz edo idatziz baieztatuko du erakusketaria onartu den, irizpideak betetzen diren kasuetan. Hala izanez gero, erakusketariak gutzitzailearen % 50 ordainduko du, eta zuzenbideko ondoretarako une horretatik aurrera "parte hartzeko kontratuzat" hartuko da izena emateko eskabidea. Transferezentzia bidez ordainduko da, FUNDAZIO FICOBAn izenean (IBAN: ES69 2095 5045 8210 6428 5785 SWIFT: BASSES28XXX).

VII. **artikula:** **Eremua esleitzea.** Erakusketariaren berri inskripzio osoa iritsi den ordenari jarraikiz aukeratu dute kokalekua, eta inskripzio osotzat hartuko da FICOBAn behar bezala jasotzea bai eskabidearen inprimakia, beteta, bai kontratatutako eremuaren % 50ari dagokion diru-sarrera. Antolotzaileak berretzat gortetzen du eragin kortasuna dela-eta kokalekua aldatzeko ahalmena, eta erakusketariak ez du izango horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

VIII. **artikula:** **Katalogo ofizialean sartzea.** Katalogo ofiziala UNIRE 2025ren web-orrian agertuko da. Erakusketariak sektorearen arabera eta ordena alfabetikoan sartuko dira katalogo ofizialean, eta erakusketariak dagokion inprimakian horretarako utzi den eremuaren adierazi dituen datuak jasoko dira bertan.

IX. **artikula:** **Erakusketari-paseak.** Azoka-egunetarako, baita muntatze eta desmuntatzeko egunetarako ere, erakusketari bakoitzak doako erakusketari-paseak jasoko ditu standean egongo diren langileentzat: 4 pase 12m<sup>2</sup>ko stand bakoitzeko, eta bat gehiago kontratatutako 30 m<sup>2</sup> bakoitzeko.

X. **artikula:** **Gonbidapenak.** FICOBAn doako 10 gonbidapen emango dizkio erakusketari bakoitzari kontratatzen duen m<sup>2</sup> bakoitzeko.

XI. **artikula:** **Aparkalekua.** Ficobako aparkalekua doakoa da, baina muntatze, azoka eta desmuntatzeko egunetan, gauetan zehar (22:00etatik biharamuneko 8:00ak arte) utziko ibilgailuen matrikularen berri eman behar zaio antolotzaileari.

XII. **artikula:** **Muntatu eta desmuntatzea.** Diseinuko standak muntatzeko egunak martxoaren 15, 16 eta 17a izango dira, 8:00etatik 20:00etara bitarte. Stand modu-larrak muntatzeko eta apaintzeko eguna martxoak 17 izango da. Desmuntatzeko egunak martxoaren 19a, 17:00etatik 22:00etara, eta martxoaren 20a, 8:00etatik 20:00etara, izango dira. Muntatzeko eta desmuntatzeko garaian ezingo da merkantzien zama-lanetarako ibilgailurik sartu pabilioetan. Erakusketariak edo haren instalazio, material edo merkantziek kalterik eragiten badu standetan edo azoka egiten den instalazioetan, erakusketariaren kargura izango da.

XIII. **artikula:** **Merkantziak aurrez bidaltzea eta jasotzea.** Enpresa erakusketariak aurrez bidali ahal izango du Antolotzaileak jasoko duen merkantzia. Egun eta ordutegi hauetan jasoko du aurrez: martxoaren 10tik 15era, 9:00etatik 13:00etara eta martxoak 17 8:00etatik 20:00etara. Enpresa garraiolariek bere kabuz eta bere arriskupean deskargatuko du merkantzia, eta kamioi plataformaduna ekarri beharko du horretarako. Orga jasotzaileak erabili behar bada, enpresa erakusketariari fakturatuko zaio zerbitzua. Aurrez erreserbatu ezean, ezin da bermatu orga jasotzaileak erabilgarri egongo denik. Ez da jasoko merkantziarik martxoaren 10an ordainketa guztiak eginak ez dituzten enpresengandik.

XIV. **artikula:** **Standei arreta.** Erakusketariak behar bezalako arreta jarri behar dio standari Erakustaldia zabalik dagoen orduetan.

XV. **artikula:** **Entzunaldi eta emanaldiak.** Standetan musika-entzunaldiak edo film nahiz sustapen-bideoen emanaldiak egiten badira, kontuan izan Egileen eta Argitaratzaileen Sobietate Nagusiari ordaindu beharreko egile-eskubideak daudela, eta erakusketariak zuzenean bere gain hartzen duela horren erantzukizun osoa. FICOBAn FUNDAZIOAK ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, ez zuzenean ez zeharka, ez Sobietatearekiko ez erakusketariarekiko.

XVI. **artikula:** **Ezeztatzea eta parte hartzeari uko egitea.**

Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 5 hilabeteak baino lehen gertatzen bada, ordura arte ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuliko zaio. Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 5 hilabeteen eta 2 hilabeteen artean gertatzen bada, eremuaren gutzitako zenbatekoaren % 50 itzuliko zaio. Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 60 eguneean eta 30 eguneean artean gertatzen bada, eremuaren gutzitako zenbatekoaren % 10 itzuliko da. Uko egitea inaugurazioaren aurreko 30 egunen ondoren gertatzen bada, espazio osoa ordaintzeko eskatuko da.

Uko formalki jakinarazi beharko zaio Antolotzaileari, eta uko hori jaso den eguna hartuko da ofizialtzat. Erakusketariak uko egin eta gero, antolotzaileak eskumena izango du erreferentziako eremua berak egoki irizitako norbati esleitzeko.

XVII. **artikula:** **Ficoba Fundazioak berretzat gortetzen du erakusketara laburtu, luzatu edo atzeratzeko eskubidea, inguruabar bereziak edo ezinbesteko kausak direla-eta beharrezkoa bada, eta erakusketariak ez dute jasoko horregatik kalte-ordainik.**

XVIII. **artikula:** **Aseguruak.** Erakusketaria hirugarrenentzako erantzukizun zibileko bere aseguruaren arduraduna da.

XIX. **artikula:** **Enpresa erakusketariaren langileak.** Erakusketari bakoitza izango da bere standa kudeatzen duten langileen erantzule, baita haien beren zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneean izatearen erantzule ere.

XX. **artikula:** **Betekizun legal, sanitario eta fiskalak.** Parte hartzen duten enpresa guztiak legez jardun beharko dute, betekizun legal, sanitario eta fiskal guztiak betetz. Enpresa erakusketariak antolotzailearen eta / edo agintari eskudunen eskura jarri beharko dituzte egoera hori egiaztatzen duten agiri guztiak.

XXI. **artikula:** **Argazkigintza eta irudiak hartzea.** Ficobako erakustazokara sartzen diren edo bertan denbora pasatzen duten pertsona guztiak jakinarazten zaie beren argazki eta bideo grabazioak egin daitzkeela. Ficobako esparrura sartzean, pertsona horiek onartzen dute haien argazkiak eta grabazioak, aurrepegin irudik barne, erabili ahal izango direla kasuan kasuko azokari buruzko erreportajeen testuinguruan, telebistan, ekizipen pribatuko filmetan, euskarri inprimatuetan eta online euskarrietan, eta, bereziki, web orrietan, sare sozialetan eta bideo-plataformetan, Ficobako esparrura sartu aurretik erabilera horren aurka esplizituki egiten ez badute behintzat.

XXII. **artikula:** **Zaintza.** UNIRE azokak ezarritako zaintza-zerbitzua (sarbideak eta kanpoko zaintza), azoka-aldi osoan (muntaketa, ospakizunak eta desmuntatzea), bai eta esparruaren zaintza orokorreko zerbitzua ere (pabilioien barrualdea, biltegiak, etab.), disuasio-zerbitzua, segurtasun orokorrekoa eta prebentzioak dira, su-teen edo larrialdien aurkako ordena eta segurtasun gaiterako. Inola ere ez da erakusketari bakoitzaren gauza partikularrei zuzendutako segurtasuna. UNIRE azokak, beraz, ez du bere gain hartuko stand bakoitzean utzitako ekipoa eta objektuak lapurtu edo ebastea, ezta azoka egin aurretik, bitartean edo ondoren objektuek, laginek, gauza pertsonalek, muntatzeko eta/edo erakusteko materialek jasan ditzaketan kalteak ere. Stand bakoitzeko gauza partikularren zaintza eta segurtasuna, beraz, erakusketari bakoitzaren erantzukizuna da.

XXIII. **artikula:** **Erakustaldiak.** Erakustaldiak egin behar dituzten enpresek "Desmostrazioak egiteko formularioan" ezarritako betebeharrak bete behar dituzte. Betebeharrak betetzen ez dituen erakustaldi bat itxeko eskubidea du antolotzaileak.

2016/679 (EB) Erregelamenduak eta gure pribatutasun-politikak ([www.ficoba.org](http://www.ficoba.org) webgunean) xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu FICOBAn FUNDAZIOAREN fitxategietan sartuko direla eman dizkiguzun datuak, zuri etorkizuneko ekitaldien berri emateko. Sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta ahozkoa izateko, mugatzeko, eramangarritasunerako eta aurka egiteko eskubideak bali ditzakezu, idazki bat bidaliz FICOBAn FUNDAZIOARA (Iparralde etorb., 43. 20302 Irun) edo [ficoba@ficoba.org](mailto:ficoba@ficoba.org) helbide elektronikora.

FICOBAn FUNDAZIOA, IPARRALDE hiribidea 43, 20302 Irun - Tel: (+34 943 667788) - IFK: G2081676